

BALIOZKO PROPOSAMENA

Gaur egun plastikoen lurra hartu dute. Haien ekoizpenak eta erabilpenak mehatxu bat dira planetarentzat, edozein ingurune, itsasoak batez ere, kutsatzen dituztelako, baita itsas espezieak eta azkenik gizakiak ere. Greenpeace-ko adituek diotenez, urtero itsasoek eta ozeanoek 12 milioi tona plastiko damaratzate haien uretan. Hori dela eta, 2020. urteko egoera larriagotuko dela aitortu dute, plastikoen ekoizpena 500 milioi tonetara helduko baita. Gainera, Europar Batasunaren barruan plastiko gehien ekoizten dituzten herrialdeen artean Espainia bostgarren postuan kokatzen dela baieztatu du Greenpeace-ko elkarte ekologistak.

Argi dago plastikoen arazo larria direla planetarentzat, batez ere erabilera bakarreko ontziak egiteko ekoizten direlako eta haien deskonposaketa, ingurumenarentzat oso kaltegarriak izateaz gain, oso geldoa delako. Adibidez, plastikozko erabilera bakarreko mahai tresnek 400 urte inguru behar dituzte guztiz deskonposatzeko.

Horregatik, gure enpresak, Basoa enpresak, ingurumena zaintzeak duen erabateko garrantziari buruz kontzientziatu nahi ditu adin guztietako pertsonak, horretarako ingurumena kaltetzen ez duten mahai-tresnetan, biodegradagarriak edo jan ahal direnetan, jarri ahal diren diseinu erakargarriak sortuko ditugu. Arestian aipatu dugun bezala, plastikozko mahai tresnak erabilera bakarreko plastikoen dira, eta gure produktuekin hauen erabilera saihestuko edo murriztuko genuke. Enpresek, gure produktuak erosiko balituzte, haien bezeroek ez lituzkete plastikozko mahai tresnak kontsumituko eta horrela plastiko hondakinak murriztuko lirateke. Hau esanda, ondorioztatu dezakegu ingurumena kaltetzen ez duten mahai-tresnak ekoizten duten enpresak bultzatu nahi ditugula.

Horretarako, basoan eta naturan aurkitu ditzakegun elementuetan oinarritutako diseinuak egingo ditugu, baita urteko urtaro edo data garrantzitsuetan oinarritutako diseinuak ere, Halloween, negua, udarriberrria eta Gabonetako marrazkiak esate baterako. Gainera, filmetan edo telebistan agertzen diren marrazki bizidunen diseinuak egingo ditugu Disney eta Nickelodeon enpresen baimena lortuz gero.

Laburbilduz, Basoa enpresan ingurumena kaltetzen ez duten mahai-tresnetan jarri ahal diren diseinu erakargarriak sortuko ditugu, gure produktuen bitartez gure bezeroak diren enpresa ekologikoetan hainbat kontsumitzaile berrien arreta deitzen lortzeko. Hortaz, gure bezeroei pertsonalizazioa eta diseinua eskainiko dizkiegu.